

## ARTAZURIKETAK ETA KONTAGINTZA

*Oiartzun, 1994-12-29*

*Patri Urkizu*

Jaun-Andreok, gabon eta Urteberri on!

Zein da zure grazia? Honelaxe zuzendu zitzaidan On Manuel Lekuona eza-gutu nuenean duela urte mordoxka, Errenteriako Institutuan irakasle nintzelarik anartean eta euskal aste bat antolatzen. Hara inbitatua genuen On Manuel Lekuona Eguberriaz eta Olentzeroaz mintza zekigun. Eta benetan gauza interes-garririk entzun genuen, eta ohartu ginen, besteak beste, hemen inguruan bizi garenontzat, oiartzuar, errenteriar eta lezoarrentzat eguzkia Aiako Harrian altxatzen dela eta Igeldoko parean gordetzen, gauaren ihesi. Kantatu zigun ere Kopla Zahar (1) zenbait eta haietarik bat etzi kantako duguna da:

Lezo ta Errenteriya  
irugarrena Oiartzun,  
nere lagunak, *Diostesalbe*  
garbuarekin erantzun.

*Diostesalbe!* Ongi etorri!  
Gabon Jainkuak diyela!  
Legiarekin konpli dezagun  
Urteberriren bezpera.

Eta beste hainbat kopla. Nire grazia, alegia, izena esan nionean lezoarren kontu zahar batzuek hasi zitzaizkidan kontatzen, nola *bitako* fama geneukan, Oiartzungo ferira astelehenetan ekartzen zituztenean haziendak, hauek beti bai ezkererako bai eskuinerako dohainik eta baliorik ba omen zuten, eta lezoarrok bezala.

Hemen daukazue, bada, lezoar hau, On Manuel omendu nahirik, hizpide *Artazuriketak eta kontagintza* harturik.

Zer dira artazuriketak? Hobeto esatearren, zer ziren artazuriketak?

Har dezagun Koldo Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia* (2) eta ideki hitz horretan. Hona zer dioen:

**artazuriketa, artozuriketa, artaxuriketa.** Operación de deshojar el maíz. “El despojar al maíz de su perifolla es una faena que en nuestro País tenía la significación de «velada literaria» en que se ha ido transmitiendo oralmente

---

(1) Manuel LEKUOA: “Gabon-Kantak”, *Egan*, 5-6, Donostia, 1956, 13.

(2) Koldo MITXELENA, et al.: *Orotariko Euskal Hiztegia*. Euskaltzaindia, Bilbo, 1987, 22.

nuestra literatura popular. A esta velada se atribuye en todo el País la invención de las consejas y sobre todo de las hipérbolos: «eso se habrá inventado al destusar el maíz»”.

Noski, aipamen hau Orixeren 1935. urterako bukatua baina hamabost urte beranduago argitaratu *Eskualdunak* liburutik hartua dugu. Baina, noiztik norakoak ditugu? Noiz agertzen zaigu lehen aldiz herri-literatur adierazpen honen berria? Lehenetarikoa aipatzen, Agustín Kardaberaz hernaniar jesuita dugu, beraxe jasotzen baitigu ohitura hori Iruñean 1761ean argitaratu zituen San Inazio Loiolakoaren *Egercicioac* liburuan, eta honelaxe, hain zuzen (3):

Ta orañ, au escribitcen dedan demboran negu alderontz zuen eche barrumbean bertan, Necazarien zori oneco edo gaistoeneo arta zuriquetan, gurasoen culpaz, cer contuac, cer jolasac, cer triscac, cer libertade eragabeac? Eta azquenic mutil deabruac arguia itzali, edo atcendu, ta araguiaren lujuriaco infernuco suac, eta garrac irazaquitcen dira. Ah guraso ez fede, ta ez legueco galdu bearrac! Cer infernu bicia eriotzan!

Beraz, antza denez, ez zuten garai hartako jesuita zenbaitek oso gogoko herri libertimendu haietxek. Era berean pixkat geroxeago, 1791. inguruan Bizkairako Juan Antonio Moguelek idatzi zuen *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiana* delakoan itaun-erantzunetan honakoa irakur dezakegu:

#### I. *Cer da escandalu argalena?*

E. ... Euren echetan artazuriqueta ospetsu ta biguira infernucoac isten, edo permitietan ditubenac. Jaincuac berac daqui ceimbat lotsagabequeria, ta pecatu datoza onelaco batzar madaricatubetatic (4).

Eta beste bizkaitar batek ere artazuriketak eta bigirak elkarrekin aipatzen dizkigu eta pekatu mortala legez debekatzen. Fray Bartolome karmeldarraz ari natzaizue, zeinek bere *Euscal-Errijetaco, olgueeta, ta dantzen neurrizco-gatz-ozpinduba* Iruñean argitaratu liburutxoan honakoa zioskun:

¿Cer dirian Biguiraac?

Biguiraac dira beste olgueeta batzuc baseerri echeetan mutilac, eta nescaac gavaz eguiten ditubeenac. Olgueeta oneec guztiz dira ezainac, ta galdubac. Eguija da, ija eche guichitan eguiten dira. Ta auzuac ondo derichuela, baten bere ez. Onetario Biguiraac izaten dira Baseerrijetan, edo ezpatetiaren, edo gorubetiaren, artozuritiaren, edo gazteen aparimerijenda baten ondoric (5).

Itsusi eta lotsagarriak, pekatuzkoak omen ziren linoa garbatu, ezpatatu edota gorulanetan gabez neska-mutilek esan eta egiten omen zituztenak, batez

(3) Agustín CARDABERAZ: *Aita S. Ignacio Loyolacoaren Egercicioac...* Iruñeco liburu-guille Antonio Castillaren echean, 1761, 361.

(4) Juan Antonio MOGUEL ta URQUIZA: *Cristaubaren icasbidea edo Doctrina Cristiana*. Edizio kritikoa Fr. Luis Villasantek prestatua. Euskaltzaindia, 1987, 205.

(5) Fray Bartolome SANTA TERESA: *Euscal-errijetaco olgueeta, ta dantzen neurrizco-gatz-ozpinduba*. Iruñean, Joaquin Domingo ... liburuquillaan, 1816, 110.

ere argia itzaltzean. Dena den, hala bazen edo ez bazen, oroit dezakezue Oihenartek idatzi *Laur karbarien eresia* (1665), non linariez ari zaigula argi eta garbi ikusten den gaua lagun sakratua hausten dutela, hain ongi Jean-Baptiste Orpustanek komentatu digun bezala (6). Nire partetik entzun izan diot nire koinatu Isidro Ormazabali Zegamako baserrian, bera ttikia zelarik, artazuritzen egoten zirela, baina lizunkerien ordez errosarioa errezatzen omen zutela.

Eta gerditu al zaigu bada horrelako auzo-lanetan kontaktzen eta kantatzen zituztenez zerbait? Ez da harrigarri dosteta hauen kontra hain garraski mintzatu eta jokatu ondoren, adibidez, Mendiburu jesuita oiartzuar sutsua, gauza handirik ez gelditzea, eta XIX. mendeari dagokionez Iparraldera jo behar izatea testuak kausitzera.

Lehen euskal ipuintxoak, jada adierazi dudan bezala Oihenarteren 1657ko erretrauen artean aurki dezakegu 373.a esplikatzen hasten zaigunean honela: *Behiala, hegaztiak mintzo zirenean...* Bestetik, erlijio liburuetan aurki daitezkeen etsenpluetaz kanpo modu sistematikoagoan ipuinak edo ixtorioak Egunari edo Almanaketan agertzen hasiko zaizkigu, hain zuzen, 1848. urteko *Escualdun laborarien adiskidea, egundaria edo almanaca*-n Jean Battit Etcheberrik (1806-1898) sortuan.

Eta era ezberdinetan izendatuko dira libertimendutxo hauek, hala 1848an *Berri chaharrac* izango dira, 1849an Istorio *Tcharrac*, 1850-51ean *Istorio Bitchiac*, eta 1852an *Historiac* besterik gabe Baina 1905garren *Urtheko / Eskualdunentzat Eskuara-ko egunari / edo/Almanaka herria*-n deitzeko beste era hauek aurki ditzakegu: **Ogi-bihi burua**. *Artho churitzetako eresietarik (edo ichtorietarik), eta Patxiku Miseria*. *Artho churitzetan erraiten diren ichtorietarik*. Beraz, ikusten da, berdintsu darabiltzate *berri, ixtorio eta eresi* hitzak, batzuek *xaharrak* eta besteak *artho xuritzetakoak*, baina denak berdin entrenitzeko helburuarekin asmatuak edo kontaktuak Bada, noski, Pierre Lafittek aipatzen digun *Corpus Fabularum Vasconiae* Euskal Herriko Jakintza edo delakoa osatzeko oraindik zer aurki eta bila urteroko almanaka zaharretan, egunarietan eta errebitetan.

Ezagunagoak aipatzearen, testu lehenetarikoak ditugu Jean Duvoisin (1810- 1891) kapitainak bilduak, antza denez 1832. urte inguruan, goarda lanetan zebilenean Baigorri aldean, 1883-84 urteetan Parisen plazaratuak, eta duela urte batzuek berriki Juan San Martinek berrargitaratuak (1987). Hona zer nolako sarrera ipinten dion *Baigorriko Zazpi Liliak* “Les sept fleurs de Baigorri et la reine des sept fleurs. La légende Basque”, izenpean osatu bildumatorioari (7):

(6) Jean-Baptiste ORPUSTAN: “Réalisme et fantaisie narrative chez A. Oyhénart: *Laur karbarien eresia* (Le récit des quatre cardeuses)”, *Memoriae L. Mitxelena magistri sacrum*. Ed. J.A. Lakarra et al., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 1991, 201-216.

(7) *Revue des Basses Pyrénées et des Landes*. Paris, 1883, 373.

Beihalako egunetan, behin batez, Baigorriko jauregi zaharreen ziren artho-xuritzeak. Badakizue artho-xuritzeetara biltzen ohi dela inguruetako gazteria, eta holako bilkhuetan lakhet dutela kantu zaharren kantatzea eta noizbaiteko khonderen erreberritzea.

Halako solasak Baigorriko herjaunaren gogoko ziren; goan zen beraz artho-xuritzailletara bere alaba andrearekin.

Han baziren zazpi neskatxa gazte deitzen zituztenak Herriko Zazpi-Liliak. Hekieri buruz hau erran zuen herjaunak:

Aurten, ene alaba andrearen ezkonarazteko gogotan naiz. Zuetarik zeinak-ere pollikienik erranen baitu kondera xahar bat, hainari dote on bat emanen diot ene alabarekin batean ezkontzeko bere hautuko gizon gazte batekin.

Eta kontalariak izan ziren Leizarazuku Gana, Urdozeko Madalena, Gera-xane Iriberrikoa, Extebeni Mokozaingoa Tartaroaren ixtorioarekin, Fermina Leizpaz-Jauregikoa, Martha Okhilenberrokoa, eta zazpigarrena Maria Etxauzekoa. Egiak badira ematen dizkiguten data-erreferentziak, ixtorioak XVIII. mendean bizi izan ziren atso-xaharrendandik entzunak zituzten, eta hauek? Noski, ez litzateke zail aitzinagoko mendeetan murgiltzea.

Nabarmentzen dena da, argi eta garbi, Duvoisinek menderatzen zuela kontakizunen antzea eta artea, eta argitaratzen dituenean gaztetan bildutakoak badakiela haientzat marko pollit bat prestatzen. Ordurako, hasia zen jadanik Jean François Cerquand († 1888) Paben Bordeleko Akademiaren inspektorea, biltzen eta argitaratzen *Légendes et récits populaires du Pays Basque*, deitu zituenak Pabeko *Bulletin de la Société des Sciences, Lettres et Arts* delakoan (1874-1885).

Eta hona zer dioen Cerquand-ek hitzaurrean (8) kontu hauetaz:

Euskal Herriko ahozko literaturan atsotitzak eta kantuak izan dira orain arte argitaratutako monumentu bakarrak. [...] Haiek bezain herrikoi eta jatorrak diren beste monumentu batzu ez litezke ezagutzera eman? [...] Ez da erreza izan nere asmoa ulertaraztea: errientak ez dira gau beiletan ibiltzen, neguan lanpetuegi izaten direlako Eguneko eskolaren ondoan, gauekoa eman behar dute eta honez gain, Herriko Etxean ere lan egin behar, haiek bait dira frantsesez ongi mintzatzen eta irakurtzen duten bakarrak. [...] Gainera, oraingo gau beilak ez dira aintzinekoak bezala. Emigrazioa dela eta, familiak gero eta txikiagoak izaten dira, solasak eta eleketak ez dute lehenagoko eragipena...

Biltzaile izan ziren ere XIX. mende bukaera horretan —aitzindari izan zituzten, Michel, Chaho eta beste—, Wentworth Webster eta Julien Vinson. Lehenak, ingeles euskalzaleak, ingelesera itzuli eta Londresen plazaratu zituen *Basque Legends* delakoak (1877), berriki Xipri Arbelbidek (Kriselu, 1993) argitaratuak euskarazko jatorrizko testuak, norbaitek, ingeles, gaztelania edo

(8) Jean François CERQUAND: *Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak*. Anuntxi Aranaren Transkripzioa. Txertoa argitaldaria, Donostia, 1985, 11.

frantzesetik itzuli baino lehenago. Bigarrenak, *Le folklore du Pays Basque* (1883) Parisen argitara eman zuen bilduma eder batean, hots, Nazio guztietako herri literaturak biltzen zituen kolekzioan, XV. tomoa osatuz, eta bertan tradizioak, ipuinak, kantikak, errefrauek, papaitak, epixtolak eta beste bilduz. Sarreran esaten digu ere, nola ipuinetarik anitz Websterrekin batera bilduak zituen Donibane Lohizunen, beste batzuek Cerquand-i hartuak eta bat Tolosan plazaratu *Tradiciones vasco-cántabras* liburuari (1866).

Tamalez, lehenago eman ziren erdaraz ixtorio hauek, euskaraz baino. Eta oraindik egun badira eskuzkribu zaharretan galzorian daudenak, eta *Eskualduna* aldizkarian (1887-1945) adibidez, sakabanaturik hamaika ixtorio, plaza-ratzea mereziko luketenak bilduma eder batean. Horretarako lehen pausuak, eman dizkigu Emile Larre jaunak zenbait errebistetak (Almanakak, *Gure Herria, Otoizlari...*) lanak miatzen eta zer non aurki dezakegun argitzen. Esker anitz.

Hala topa ditzakegu Jean Elissalde “Zerbitzari”k *Gure Herrian*, 1921-22. urteetan eman zizkigun 63 ixtoriotxo, “Artho Churitzetan”, titulupean emanak. Hauetako bat, ezkontza gaitzat duena kontatuko dizuet. Halaxe dio:

Mahain saildurat hurbilduak dira ezkontzeko amerikano zahar bat eta neskatxa gazte bat, izarra bezen ederra. Itsusi da errateko, bainan burhasoek alaba saldu diote amerikanoari bere sosarentzat.

Hurbiltzen zaiote aphez eta ezkontzako sakramenduaz erraten diozkate ezkont-geieri behar diren guziak.

Eta gero amerikanoari, ohi den bezala:

— Nahi duzu hartu...

Amerikanoak, laster-lasterra:

— Bai, jauna.

Aphezak orduan neskatxari:

— Nahi duzu hartu...

Neskatxak:

— Ori, jauna, nihork ez daut egundaino galde hori egin!

Ez zaie, noski, Larrek ongiasko dioen bezala, ez zuhurtziarik ez eta gatza izpirik falta Zerbitzariren ixtorioei, ez eta Piarres Lafitte “Ithurralde” izenez 1945. urtean argitaratu *Murtuts eta bertze... Artho churitzetako zombait ichtorio chahar* liburuan ageri direnei. Lafitteren ixtorio batzuek, ordea, *Matalas* bezalakoak adibidez, areago dira pertsonaia historikoei buruzko kontakizunak ixtorio xaharrak baino. Artazuriketen giroa, hobekien aurkezten eta pintatzen diguna Iparraldeko euskal kontalarien artean, Pierra Jaury, urdinabetarra dugu, Seminario handian ikasle zelarik, 1937. urtean, Eskualzaleen-Biltzarrak anto-

laturiko norgehiagokan lehen sariaren irabazlea. Hona bertatik ateratako zenbait zehaztasun eta xehekeria:

Abentuko gai hotz bat da ... nahiz eztiren orano gaiko zazpi orenak... Ikhusten ahal dira Urdinarbe Etcheberrilat buruz joaiten jente andana bat... Zer debru othe da gaur Etcheberrin? Zer den? Artho-xuritzia. Hortakoz dira khumitatu aizo eta adixkidiak, Phetiri Etcheberrien laguntzera gogo hunez joaiten... Etxeko jaunak emaiten deie ardu edatera, ogi eta gasna jatera... Nausiak so bat egin-eta, galthatzen deie: Eztuzieia bide hortan ikhusi Jan Pierra Biagutt?... Jan Pierra Biagutta da Urdinarbeko dritxokarik hoberena; bere begi okerrek, ttipi eta lodi bezain erriegingarri da. Hainbestenarekin sartzen da Biagutt... Ardu ñabar argiak tzuntzurra trenpu hunin ezarri deio, ezi beha zitie: Nahi deiziet a ixtoria ttipi bat ezaguterazi...

Kontatzen dizkie, bada, Altzurukuko apezarena, Barkoxeko laminarena, eta berari gertaturiko pasadizoak eta...

... Ixtoria hunen urhentzila artino, artho xurizaliak oro erriz ethenik dirade, begietarik nigarra juiten, beren sabeler etxeka, uduri lotsa diela hegaltatien... Hamekak eta erditako Etcheberriko arthuak xuriturik dira. Nahiz uda eta larrazken hatsarria gaixto izan dien, Etcheberri bozkariotan da badilakoz iragan urthian bezain beste artho....Jan Pierra zaharra eta Batixta gaztia badutza besapez, khanta orruaz...hotza bat ere bogatu gabe. Haien heotsak ezitia ttipi, ezi Garraibi zokhula artino txakurrak oro txanphaz hasazten dutie eta lozale hanitx ere iratzarrazten... Bena oren erdi baten buruko, ezta haboro ez khantarik ez zakhurrik ezagun.... Ixiltasun handienian, argizagiak zelutik argitzen dutu ejerki bazterrak, kharru ikharagarri batek, Etcheberriko arthuak beno hobeki xuriturik.

Zazpizatik hamaika t'erditara lau ordu luze ziren lanean eta zerbaitekin entretenitu behar. Halaxe dio bada, Lafittek (9), liho-kardatze, eta arto-xuritzetan ere jostatzeko egiten zirela alegiazko aharrak, bai bertsotan eta bai hitz lauz, gaia zer nahitaz hartzen zelarik: doteaz, gizon-gai baten hautatzeaz, etabar. Nola elkar-hizketa horiek Baxenabarren *disputak* deitzen zituzten, Nafarroan *errandoak* eta Ataunen *Zelemín* ta *Zelemón*.

Nikolas Ormaetxea "Orixe" k aipatu *Euskaldunak* liburuan hauetariko bat asmatzen digu, *Artazuriketa* kapitulu barnean. Hau Errekalden egiten dute, eta lanean ari diren bitartean honako entretenimenduez dastatzen dute:

1. Juan ehiztariak kontatuta basurdearen ixtorioaz.
2. Asmaketa edo papaita jolasaz.
3. Atxomotxa kontu-eder-kontariak errege baten alabaren eta bukaera zo-riontsua duen ixtorioaz.
4. Pititi Traketsek neska zahar bati buruzko kanta ezagunaz: *Ikusi nuanean /zure ille latza...*

(9) Piarres LAFITTE: *Euskal Literatura*. Patri Urkizuren edizioa. Erein, Donostia, 1990, 44.

5. Zenbait maite-eresi ondoren ama-alaben arteko lelo honetaz: *Ama, ez-kondu...*

6. Larraungo eta Uitziko *lectio epistolae* famatuez, eta

7. Errando batez.

Errando (< Fernando) honen funtsa ama-alabaren arteko eta senar-emaztearen arteko elkarrizketa zalapartatsuetan datza. Hona azken hauen arteko bi bertso:

Neure senar tontozko  
artojale aundizko  
zazpi talo bear ditu  
otorduan jateko.

— Neure emazte belendin,  
kata-usaia deragin,  
ortzak galdu ditun eta  
ire pertzak egin din.

Baina sesio guztiak azkenean neska-mutilen arteko dantza batekin bukatzen dituzte, eta Orixek bukatzen duen bezala:

Ez badute lotu norbait nai lukenarekin,  
urren-artazurizetan kenduko bere min.

Alegia, hurrengo artazuriketetan edo erromeriaren batean beharko dutela pareja bilatu eta aurkitu. Horrelako ixtorio eta elkarrizketa parregarria aipatzen digu Manuel Lekuonak *Literatura oral vasca* liburuan (10), esanez Oiartzunen jaso zuela ipuin kontalari eta imitatzaile jajoa zen *Aitona* izeneko baten ahotik zuela hogeita hamarren bat urte. Antzerkitxo denok ezagutzen duzue, batez ere Xabier Leteren bitartekaritza apartaz, baina hona ekarri nahi dut. Halaxe diote:

—Jaungoikuak egun on dizula, Andre Brijida,  
aspaldiyan etzaitut ikusi orren goiz jeikiya.  
Beti bezela derakarzkizu kolore gorriyak...

—Ez dira, bada, eman dizkidalako gosari-txikiyak...

...

—Buenas tías tengan ustedes: Senora, cómo lo pasa usted?

—Osasunakin. .gazelaniaz yo no sabe.

—Goizian goizik etorriya naz zutaz enkontratzerá...

—Prezisua da, ni zure alabakin ezkontzia.

—Nere alaba biyotzekua: aizan arapiko!  
Artzan kopa bat, kopa bat artzan, tratu egiteko;  
olako proportziyoric ez dun nola-nai galtzeko.

—Ama nere biyotzekua: ez naz orrekin ezkonduko.

—Zer aitzen dinat, arapiko? Ez yazela orrekin ezkonduko?

[...] goiko larrian bi ardi antzu ta iru artantxo;

(10) Manuel LEKUONA: *Literatura oral vasca*. Añiamendi, Donostia, 1965, 148.

beko soruan baria abasto...

Ez al-da asko gu bizitzeko?

Noski, ezkontza-eskaera honetan hizkuntzen nahastean eta dotearen balioren ezteusan datza irrigarritasuna. Eta berdintsuak ziratekeen ere Ataungo *Zelemín ta Zelemon* jokoak.

Gaztelaniaz ere errefrau bat bada *celemín* hitzaz, adierazteko, emakumeen jazkera hantuste eta irrigarriak: *Por deseo de chapines, metí los pies en medios celemines. Dícese de las mujeres que queriendo ir bien compuestas, sin tener medios para ello se sirven de las cosas más extravagantes.*

Julian Alustiza "Aztiri" arta zuriketaz mintzo zaigularik ere kontaktzen digu (11) nola Zumarragako Urrutia baserriko *Txalto* aiton xaharrak hamaika pasadizo xeblere kontaktzen zituen. Errefrauk, papaitak, prefazio eta *lectio epistolae* berexiak, kantak, kontakizunak, antzerkitxoak, denek parte hartzen zuten garai bateko artazuriketetan, ahozko literatura bezala deitu izan den horretan, *lana, dibertsioa eta eskola, hiruok bateginik*, Juan Mari Lekuonak (12) esaten digun bezala, eta, noski, garai hartako funtzio berdinak ez bete arren, besterik bete dezakete egun.

Hona zer dioen, hain zuzen, Paul Delarue, trantses ipuin herrikoien azterzaileak hauei buruz (13):

Le conte de tradition oral a presque complètement perdu sa fonction esthétique et sociale qui était de récréer les assablées de paysans et d'artisans durant les longues veillées d'hiver, d'accompagner certains travaux sédentaires ou monotones...

Gaur egun ahozko tradizioan txertatutako ipuinek ia galdua dutela bere funtzio estetiko eta soziala, alegia, neguko arratsalde luzeetan nekazari eta artesauen auzo-lanbilerak arindu eta alaitzearena. Eta halaxe da, noski, ze nork daki egun, laborantzako tresneriak aldatuak direlarik, gazteen artean zer ziren artazuriketak? Inor gutxik, tamalez. Dena den, bilkura haietako izpiritua al daturik izan arren, bizirik irauten du kontu kontaktak, gizonak betidanik izan duen beharra baita, hau da bestearekin nolapait komunikatzekoa.

Eta bukatzeko lekukorik jatorrena datekeen esaera zaharra:

Elur, melur, ez nauk hire beldur,  
etxen baditiat arto eta egur.

Mila esker zuen arretagatik.

(11) Julian ALUSTIZA "Aztiri": *Euskal baserriaren inguruan*. Arantzazu Frantziskotar argitaletxea. Oñati, 1985, 112.

(12) Juan Mari LEKUONA: "Izaera eta ofizio bereziko pertsonaien erretaula *Euskaldunak poeman*", *Orixo. Mendeurrena* (1888-1988). IV. *Hitzaldiak*, Etor, 199, 398

(13) Paul DELARUE: *Le conte populaire français*. G.-P. Maisonneuve et Larre. Paris, 1985, T. I, 46.